

EMAKUME ETA KOMUNITATEAK

Aldaketak gidatzen dituzten

2025eko
jarduera-memoria





Manuela Ramos Mugimendua. Peru.

ESKUBIDEEKIKO KONPROMISOA, ALDAKETA ETÁ ZIURGABETASUN GARAIAIN

Nazioarteko zigorgabetasunak eta erakunde demokratikoen ahultzeak markatutako testuinguru globala bizi dugu. Gerrak legitimatu egiten dira, genozidioak isildu egiten dira eta segurtasunaren diskurtsoa gero eta maizago erabiltzen da oinarritzko eskubideen murrizketa justifikatzeko. Dinamika horiek ez dira urrunak: gure gizarteei ere eragiten diete, eta pertsona, komunitate eta lurralde askok bizi dituzten desberdintasunak larriagotzen dituzte.

Errealitate horren aurrean, 2025ean, gizarte-erakundeek oraina eta etorkizuna eraikitzeke beste modu batzuk badaudela erakusten jarraitzen dugu. **medicus**mundi Gipuzkoatik Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzarekin eta Garapenerako Lankidetzarekin dugun konpromisoari eusten jarraitzen diogu, pobrezia, desberdintasuna eta bazterkeria eragiten duten arrazoen inguruan lan eginez, eta bai pertsonen zein komunitateen eskubideak, autonomia eta antolaketa indartzen dituzten prozesuak lagunduz.

2025ean zehar sexu eta ugalketa eskubideak eta indarkeria matxista, arrazista eta ingurumen-indarkeriarik gabe bizitzeko eskubidea defendatzen jarraitu

dugu, horretarako emakumeen ahalduntzea, lidergoa eta parte-hartzea bultzatuz. Era berean, Ipar eta Hego Globaleko errealitateak lotzen dituzten eta herritar kritikoagoak, solidarioagoak eta konprometituagoak eraikitzen laguntzen duten prestakuntza, mobilizazio eta eragin politikorako espazioak sortzen jarraitzen dugu.

Horrelakorik ez zen posible izango gure Hegoaldeko erakunde bazkideen, prozesu horien protagonista izan ziren emakume eta komunitateen, erakunde laguntzaileen, **medicus**mundi Gipuzkoa osatzen dugun guztion (bazkide, boluntario zein langile) eta babesa ematen diguten pertsona guztien ezagutza, indarra eta konpromisorik gabe.

Ziurgabetasun eta eskubideen atzerakada garaio-tan, hurbiletik eta kolektibotik lan egiten jarraituko dugu, duintasuna, berdintasuna eta justizia defendatzeko.

Lurdes Fernandez Irisarri
medicusmundi Gipuzkoako
lehendakaria.



medicusmundi Gipuzkoa, Donostia.

EZAGUTU GAITZAZU

Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakunde (GGKE) bat gara, irabazi-asmorik gabea eta erlijio zein politika aldetik independentea, 1974tik pertsona guztien osasunerako eskubidearen alde lan egiten duena.

Osasuna gaixotasunik eza baino askoz gehiago dela ulertzen dugu: ongizate-egoera bat da, bizi garen baldintzekin lotura estua duena. Horregatik, bai Gipuzkoan bai Hego Globaleko herrialdeetan lan egiten dugu, betiere tokiko erakundeekin batera, desberdinkeria handienak bizi dituzten pertsonen eta komunitateen bizi-baldintzak hobetzen laguntzeko.



CREA. India.

medicusmundi Gipuzkoa osatzen dugun pertsonak

- **472 bazkide**
- **Zuzendaritza batzordea:** Lurdes Fernández, Asun Isasi, Inmaculada Vila, Jesús Aguirre eta Gema Hierro.
- **Boluntarioak:** Jesús Aguirre, Jesus Agirre Lazkano, Agustin Almandoz, Fernando Ando-negi, Inmaculada Abánces, Jon Barandiaran, Eva-María Coria, José Mari Eizmendi, Juan Erviti, Jesús Etxegia, Lurdes Fernandez, Eduardo Gara-te, Arantza Garbizu, Isabel García, Laura García, Juan Luis Ibarguren, Jon Intxaurrea, Asun Isasi, Amaia Maquibar, Ana Miguel, Josean Olabe, Anto-nio Olmos eta Inmaculada Vila, beste hainbaten artean.
- **Langileak:** Josune Odriozola, Laura Laborra, Ma-rian Sanz, Gema Hierro eta Haizea Bernas, Do-nostian. Ainhoa Albeniz, India. Ana Narvaez eta Anna Chierico, Etiopian.

Erakunde hauekin batera lan egiten dugu

- Peruko erakunde feminista, **MANUELA RAMOS MUGIMENDUA.**
- Ekuadorreko erakunde feminista, **FUNDACIÓN DESAFÍO.**
- Indiako erakunde feminista, **CREA.**
- Ekuadorreko erakunde ekologista, **ACCIÓN ECOLÓGICA.**
- Nikaraguako erakunde feminista, **XOCHILT ACATL.**
- El Salvadorko erakunde feminista, **LAS MÉLIDAS.**
- Etiopiako giza eskubideen aldeko erakundea, **PASTORALIST CONCERN.**
- Etiopiako proiektua, **JANGELA SOLIDARIA.**
- Indiako giza eskubideen aldeko erakundea, **ST. LUKE'S HOSPITAL.**
- Indiako giza eskubideen aldeko erakundea, **NIVALDA DISPENSARY.**

MEDICUSMUNDI GIPUZKOA 2025ean

2025ean, gure erakunde lagunekin batera lanean jarraitu genuen, Perun, Ekuadorren, El Salvadorren, Nikaraguan, Indian eta Etiopian garatutako **19 lankidetzaproiekturen bidez**. Proiektu horiek **435.296 pertsona baino gehiagoren bizi-baldintzak hobetzen lagundu dute, batez ere emakumeenak**.

Gipuzkoan, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako prozesuei jarraipena eman zitzaien, bereziki Euskal Herriko Unibertsitatearekin (EHU) elkarlanean. **Lau proiekturen bitartez, 4.259 pertsona baino gehiagok parte hartu zuten prestakuntza, sentsibilizazio, mobilizazio eta intzidentziarako ekintzetan**.

Gure proiektu gehienek denboran iraungo duten alaketak bultzatu nahi dituzte. Horretarako, emakumeen eta komunitateen gaitasunak, autonomia eta antolatzeko moduak indartzea sustatzen dute, baliabideetarako sarbidea bidezkoagoa izatea errazten dute eta beren bizitzetara eragiten dieten erabakietan parte hartzea babesten dute.

Aldi berean, larrialdi edo zaurgarritasun bereziko egoerak daude eta berehalako erantzunak behar dituzte bizitza babesteko eta oinarritzko beharretarako sarbidea bermatzeko. **Etiopian, larrialdi humanitarioak** eragindako familiei laguntzen jarraitu dugu, elikagaiak banatuz, ura biltegitatzeko eta eskuratzeko baldintzak hobetuz eta abereei albaitaritza-arreta eskainiz. Izan ere, abeltzaintza da familia horien bizimodu nagusietako bat. **Donostian**, bazterkeria-egoeran dauden pertsonetara ere laguntzen diegu **medikamentuen eta higiene-produktuen estaldurarekin**.

2025ean, mundu osoan 439.555 pertsona baino gehiago akonpainatu genituen, 23 proiekturen bidez.

Justizia sozial eta klimatikoa eta Amazoniako herri indigenak



«Petrolio erauzten
den eremuetan,
minbiziaren lau
kasutik hiru
emakumeengan
erregistratzen
dira, kutsatutako
inguruneetan egiten
dituzten eguneroko
lanen ondorioz».

Acción Ecológica. Ekuador.

2025ean, Ekuadorren Acción Ecológicarekin eta **medicusmundi** Arabarekin batera grabatutako Zona Wao dokumentalak giza eskubideen nazioarteko jaialdietako ibilbideari jarraitu zion. Film laburrak erakusten du Repsolek burututako petrolio-erauzketak zer-nolako eragina izan duen **Ekuadorko Amazoniako** herri indigenen ingurumenean, osasunean eta bizimoduan.

Gure webgunean ikusgai dagoen Zona Waok nazioarteko 12 aitortza jaso ditu eta 2026ko Goya Sarietarako hautagai izan zen. Azkenean Goya saria irabazi ez bazuen ere, Estatuko bost dokumental labor onenen artean kokatu zen. Aitorpen hori mugarria izan zen erakundearentzat eta, batez ere, bozgorailu garrantzitsua egungo eredu ekonomiko eta energetikoak munduko beste leku batzuetako bizitzetan eta lurraldeetan sortzen dituen eraginak erakusteko.

Gipuzkoan, dokumentala Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldian, Hernaniko Hariak Jaialdian eta San Telmo Museoan proiektatu zen, errealitate honen aurrean dugun erantzukizun partekatuari buruz hausnartzeko espazioak sortuz.

Zona Wao-n ikus daitekeen bezala, emakumeak dira kutsaduraren eta lurraldearen degradazioaren ondorioak bereziki pairatzen dituztenak. Baita, komunitateetan ematen diren aldaketa sozialen ondorioak, desberdintasunak eta indarkeria-egoerak larriagotuz.

Erauzketa-industriaren eta genero-desberdintasunaren arteko harremanari buruzko begirada hori **Peruko Amazonian** babesten dugun lanean ere badago. Ucayalin, Manuela Ramos Mugimenduarekin batera, emakume indigenen bidelagun izaten jarraitu genuen, haien autonomia eta lidergoa indartzeko eta komunitateetako erabaki-guneetan parte hartzea sustatzeko, beren eskubideak defenda ditzaten.

Sexu Heziketa Integrala (SHI)



«Perun, 2025ean, 10 eta 19 urte arteko nerabeen 34.383 haurdunaldi erregistratu ziren».



Manuela Ramos Mugimendua. Peru.

Gizarte-aurrerapenak arriskuan jartzen dituzten diskurtsoen gorakadak eta sexu eta ugalketa eskubideak zalantzan jartzen dituzten gezurren hedapenak markatutako mundu-mailako testuinguru batean, Sexu Heziketa Integrala(SHI)bereziki garrantzitsua da. **SHIk haur eta nerabeei informazioa eta tresnak eskaintzen dizkie beren gorputza ezagutzeko, erabakiak hartzeko, errespetuan oinarritutako harremanak eraikitzeko eta abusua edo indarkeria egoerak antzemateko.**

Manuela Ramos Mugimenduarekin batera **Peruko Ayacucho, Lima eta Ucayali eskualdeetan** garatutako esperientziak agerian utzi du SHI-k nerabazaroko haurdunaldiak, sexu-indarkeria eta beste eskubide-urraketa batzuk prebenitzeko duen garrantzia.

Errealitate horren aurrean, 2025ean, Manuela Ramos Mugimendua eta Alianza Sí Podemosek Sexu Heziketa Integralari buruzko lege-proposamen bat bultzatu zuten. Helburua

SHI eztabaida publikoan kokatzea zen, eta sexu-hezkuntza gutxien edo kriminalizatzen saiatzen diren diskurtsoei egiazko informazioarekin eta eskubideen ikuspegitik erantzutea.

Aldi berean, irakasleekin, ikasleekin eta familiekin lanean jarraitu zuten SHI-a ikastetxeetako prestakuntzan txertatzeko. Komunikazio eta sentsibilizazio-kanpainak ere garatu zituzten herritarrei honek indarkeriaren prebentzioan eta haur eta nerabeen ongizatean dituen onurak hurbiltzeko.

Lortutako aldaketek prozesu horiei jarraipena ematearen garrantzia erakutsi zuten. Adibidez, egindako lanaren esparruan, **«Limako Pampuna Altan dagoen El Nazareno ikastetxeak nerabeen haurdunaldi-tasa %15etik %0ra jaitsi zuen 2025ean».**

Ekuadorren, non egunero sei neska ama bihurtzen diren senide batek bortxatu ondoren, Fundación Desafío SHIrako eskubidea bermatzeko lege-proposamen bat aurkeztu zuen Asanblea Nasionalean. 2025aren amaieran, eztabaidatzeko zain zegoen.

Prozesuak beharrezko eztabaida soziala ireki zuen. Beldurra eta desinformazioa erabiltzen dituzten mezuen aurrean, proposamenak haur eta nerabeen informaziorako eta sexualitatea modu seguru, aske eta errespetuzkoan bizitzeko eskubidea defendatzen du.

Gracias a la ESI,
decidir sobre tu reproducción
puede ser:

Consciente:
porque tienes la información

Libre:
porque nadie decide por ti

Informado:
porque conoces tus opciones

**La clave no es el miedo,
es la autonomía con respeto.**



Fundación Desafío. Ekuador.

Unibertsitate publikoa gizarte eraldatzeko eragile

medicusmundi Gipuzkoan unibertsitate publikoarekin lan egitea funtsezkoa dela uste dugu gizarte bidezkoago, berdintasunezkoago eta iraunkorragoetara aurrera egiteko. Unibertsitatea ez da ezagutza eskuratzeko espazio bat bakarrik, desberdinkeriak zalantzan jartzeko eta eraldatzeko espazioa ere bada.

Helburu horrekin, 2025ean hainbat formakuntza garatu genituen Euskal Herriko Unibertsitatearekin (EHU) elkarlanean, Gipuzkoan. Horien artean, **«Sexualitatea, indarkeria matxistak eta zapalkuntzen interseksionalitatea» mintegiak**, Antropologia, Gizarte Hezkuntza, Haur eta Lehen Hezkuntza, Pedagogia eta Psikologia graduetako prestakuntzan txertatuak. Espazio horien helburua ikasleak jarrera diskriminatzaileak eta sexistak prebenitzearen garrantziaz sentsibilizatzea eta horiei aurre egiteko tresnak eskaintzea da.

«Sexualitatea, generoa eta garapena» ikastaroa ere garatu zen, unibertsitate-komunitateari zein herritar guztiei zuzenduta. Ipar eta Hego Globaleko esperientzia eta testigantzen bidez, ikastaroak parte-hartzaileen kontzientzia, konfiantza eta



Mintegiak Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU). Donostia.

erabakitze gaitasuna indartu nahi ditu, sexu eta ugalketa eskubideei eta indarkeria matxistarik gabe bizitzeko eskubideari dagokienez.

Era berean, **unibertsitateko ikasleak izan genituen praktikan, medicusmundi** Gipuzkoaren Donostiako egoitzan eta Xochilt Acatlek Nikaraguan eta Manuela Ramos Mugimenduak Perun garatzen dituzten proiektuetan.

Gainera, **Unibertsitate Kritikoa Sareko (UKS)** kide gara. Sare hori unibertsitatean presentzia duten irakasleek, erakundeek eta gizarte-kolektiboek osatzen dugu. UKSren bidez, 2025ean topaketa bat egin genuen, demokraziaren ahultzeak eta desberdinkerien gorakadak markatutako gizarte-testuinguruan unibertsitateak duen eginkizunaz hausnartzeko.

Mintegietako parte hartzaile baten testigantza:

“Mintegiekin ikasi dut ekintza edo komentario batzuk hasiera batean larriak ez diren arren, kontuan eduki behar direla eta haurren artean horrelako jarrerak segituan moztu behar direla”.



Ikastaroa Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU). Donostia.

Ikastaroko parte hartzaile baten testigantza:

“Asko ikasi dut, eta beste ikuspuntu batzuetara zabaldu nau, beste esperientzia batzuetara eta ni ere ispiluaren aurrean jartzera”.



Lankidetza-praktikak. Peru.

Perun praktiketan egondako neska baten testigantza: **“Manuela Ramos Mugimenduekin lankidetza-praktikak egiteak gure borroka eta interes propioak hezkuntzatik landu ahal izatea ekarri du”.**



Unibertsitateen arteko trukea. Donostia.

Unibertsitatearekin egiten den lan hori beste herrialde batzuetara ere hedatzen da. 2025ean, **Euskal Herriko Unibertsitatearen (EHU) eta Indiako Shrirampurreko eta Etiopiako Jijigako unibertsitateen arteko trukeak** sustatu ziren. Errektoretzetako, generoari buruzko graduondoko programetako eta Erizaintza Eskoletako ordezkariekin hainbat topaketa egin ziren, esperientziak partekatzeko eta lankidetza-aukerak identifikatzeko.

Horren ondorioz, Donostiako Erizaintza Eskolaren eta Shrirampurreko St. Luke's Hospital erakundearen arteko lankidetza-hitzaurrea sinatu zen, ikasleek arteko trukeak errazteko eta bi erakundeek

arteko lotura akademikoak eta lankidetza-loturak sendotzeko. Etiopian, Pastoralist Concernekin batera, genero-ikuspegia Jijigako Unibertsitatearen hezkuntza-eskaintzan txertatzeko bidean aurrera egin zen.

El Salvadorren ere El Salvadorreko Unibertsitatearekin eta Las Mélidasekin batera proiektu bat garatu zen, irakasleak, zuzendaritzako langileak eta ikasleak genero-berdintasunaren arloan sentsibilizatzeko eta prestatzeko. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko pertzepzioen eta erantzuteko gaitasunen diagnostikoa egin zen, baita unibertsitate-eremuetako indarkeria-mapak ere. Tresna horietatik infor-



El Salvadorko unibertsitatea. Las Mélidás. El Salvador.

mazio garrantzitsua atera zen prebentzio-neurriak hartzeko, instalazioen barruko eta kanpoko arreta-ibilbideak hobetzeko eta hezkuntza-eremu seguruagoak eraikitzeko.

Azkenik, **Perun** Ayacucho eta Ucayaliko unibertsitateekin kolaborazio berri bat jaio zen eta oso harrera ona izan zuen. Tailerren, gazte-kanpaldien, kanpainen eta bestelako formakuntza espazioen bidez, emakume gazte unibertsitarioren eta mugimendu feministako erakundeek arteko topaketa sustatu zen, beren ezagutzak, parte hartzeko gaitasuna eta emakumeen eskubideen defentsarekiko konpromisoa sendotzeko.

Emakumeen ahalduntzea



Pastoralist Concern. Somalia Eskualdea, Etiopia.

«Indian esku hartzen den landa-eremuetan, gizonen %60ak lan ezegonkorrak eta ordainsari txikikoak egiten ditu, eta emakumeen %92ak lan-merkatuko segmentu baztertuenetatik kanpo ere geratzen da».



Nivalda Dispensary. India.

medicusmundi Gipuzkoak babes-ten dituen lankidetzaproiektu gehienek helburua emakumeen gaitasun indibidualak eta kolektiboak indartzea da, beren eskubideak ezagutu, erabili eta defendatu ahal izan ditzaten. Prozesu horiek emakumeen autonomia, lidergoa, antolaketa eta erabaki-guneetako parte-hartzea sustatzen dituzte, beren bizitzari eta komunitateari eragiten dieten desberdinkeriak eraldatzeko.

India, Etiopia eta Nikaragua bezalako herrialdeetan, non emakumeek sarritan oztopo sozial, ekonomiko

eta kultural garrantzitsuak dituzten hezkuntza, osasun, baliabide eta erabaki-guneetara sarbidea izateko. Horregatik, desberdinkeria horiek eraldatu eta emakumeen bizitzetan zein haien familietan eta komunitateetan aldaketak eragin nahi dituzten ahalduntze-prozesuak lagundu ziren.

Indian, gure erakunde bazkideekin batera, emakumeen autonomia fisikoa eta ekonomikoa indartzera bideratutako ahalduntze prozesuak bultzatu ziren. Beste lan-ildo batzuen artean, emakumeen ekimen ekonomikoak eta beren

eskubideak ezagutzea, baliatzea eta defendatzea bultzatzen duten aurrezki-taldeak babestu ziren. Era berean, emakumeen lidergoa eta parte-hartze politikoa sustatu genituen, beren komunitateetako erabakiguneetan aktiboki parte har dezaten. Prozesu horiek Gujarat, Maharashtra, Uttar Pradesh, Bihar eta Jharkhand Estatuetan garatu ziren.

Etiopian, emakumeen ahalduntzea gure lan-ildo nagusietako bat da Somalia Eskualdean. Pastoralist Concernekin batera, emakumeen nekazaritza eta abeltzaintza kooperatibak sortzen eta indartzen lagundu zen, diru-sarrera propioak lortu eta bizi-baldintzak hobetu ditzaten. Alfabetatze-prozesuak ere bultzatu ziren, emakumeek beren komunitateetako bizitza publikoan eta politikoan parte har dezaten. Klima-aldaketak eta behin eta berriz gertatzen diren lehorteeke bereziki eragindako eskualde batean, beste erronketako bat emakumeek horien ondorioei aurre egiteko eta beren bizibideak babesteko duten gaitasuna indartzea da.

Nikaraguan, Xochilt Acatlekin batera, indarkeriarik gabeko bizitzaren alde lan egin zen, emakume eta nerabeekin sexualitateari, autoestimuari eta indarkeriaren prebentzioari buruzko tailerrak eginez. Horrez gain, sexu-abusuak eta bestelako indarkeria matxistak pairatu dituzten emakumei laguntza psikosozialeko saioak eskaini zitzaizkien.

Gizarte- mobilizazioa eta eragin politikoa



Arrazakeria eta Xenofobiaren aurkako Martxa. Donostia.



Herritarren mobilizazioa funtsezkoa da desberdinkeriei aurre egiteko eta gizarte bidezkoagoak eraikitzeko. Parte-hartze kolektibo horrek garrantzi berezia du erakundeen ahultzeak eta eskubideen atzerakadak markatutako testuinguruan. Horregatik, urtero Gipuzkoako hainbat mobilizazioen antolaketan parte hartzen dugu:

2025ean, SOS Arrazakeria Gipuzkoarekin eta Euskadiko GGKEen Koordinakundearekin batera, **Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako Martxa**n pertsona guztientzako auzo bizigarri eta seguruak eraikitzeko baliabiderik eza salatu genuen.

Donostiako Zero Pobrezia Plataformak bultzatutako **Pobreziaren eta Bazterkeriaren aurkako Astea**n ere parte hartu genuen. Bertan, ekintza ezberdinen bidez, gure gizarteetan desberdinkeria eragiten duten arrazoiak salatu genituen. 2025ean, asteko jarduerak **«Trumpen show-a eta demokraziaren krisia»** lelopean egin ziren.



Abortuaren despenalizazioa. Peru.



Lilatoia. Donostia.

Gainera, 80 korrikalarik osatutako talde batek **Lilaton**ean parte hartu zuen, berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea kirolaren eta espazio publikoaren erabileraren bidez sustatzen dituen herri-lasterketa. Duela hiru urtetik, Bidebietako Bideberri BHIko ikasle eta irakasleak ere ekimenera batzen dira. 2025ean gure leloa **«Leonor, zuregatik korrika. Ezta bat gutxiago ere!»** izan zen.

Perun, Ekuadorren, Nikaraguan eta El Salvadorren, gure tokiko erakundeek ere mobilizazioak bultzatu zituzten emakumeen erailketak salatze eta data esanguratsuak aldarrikatzeko: martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna; irailaren 28a,

Abortu Legal eta Seguruaren aldeko Munduko Eguna; azaroaren 25a, Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatze Nazioarteko Eguna; eta abenduaren 10a, Giza Eskubideen Eguna.

Herritarren mobilizazioa eragin politikoarekin osatzen da. Horregatik, **Gipuzkoan zein lan egi-ten dugun Hego Globaleko herrialdeetan**, erakunde publikoekin bilerak bultzatzen ditugu eskaerak helarazteko eta pertsona guztien eskubideak babestuko dituzten legeak eta politikak sustatzeko. Euskadin, Eusko Jaurilaritzarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Gipuzkoako hainbat udalekin bil- du ginen.

Jangela Solidarioa

Wukro, Etiopia.

medicusmundi Gipuzkoak **Jangela Solidarioa** proiektua babesten du Wukron, Etiopiako Tigray eskualdean. 2005etik, proiektuak umezurtz egoe-
ran dauden neska-mutilei laguntzen die. Haur ho-
riek ama eta aita galdu zituzten, batez ere 1998tik
2000ra Etiopiaren eta Eritrearen artean izandako
gerraren, GIB/hiesaren, lehorteen eta beste po-
brezia eta zaurgarritasun egoera batzuen ondorioz.

2025ean, programak 400 haur eta gazte inguru-
ren elikadura, etxebizitza, jantzi eta osasun-arre-
ta beharrak estali zituen, bai eta haien hezkuntza
hautzarotik unibertsitatera arte. Laguntza ho-
rren barruan eskola-materiala, tutoretzak, lanbi-
de-heziketa eta goi-mailako ikasketekin jarraitze-
ko babesa daude.

Proiektuagizarte-langileek egiten duten hurbileko
lana ere funtsezkoa da. Etxeak eta ikastetxeak
bisitatzen dituzte haur eta gazte bakoitzaren
beharrak ezagutzeko eta hezkuntza, osasun
eta laguntza psikosoziala eskaintzeko. Horrela,
Jangela Solidarioak baldintza duinetan hazten,
prestakuntzarekin jarraitzen eta beren etorkizuna
eraikitzen laguntzen die.

medicusmundi Gipuzkoak bultzatzen dituen
proiektu guztiak hemen aurkitu ditzakezu:
<https://medicusmundigipuzkoa.eus/eu/>

medicusmundi Gipuzkoaren kontuak



ERAKUNDE FINANTZATZAILEAK

2025ean, honako erakunde publikoen finantzaketa jaso genuen proiektuak garatzeko: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostiako Udala eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentzia (AECID).



KONTUAK ARGI


Fermín Elizalde kontu-ikuskatzaileak gure kontuak ikuskatu ditu. Hala nahi duen pertsona edo erakunde orok **medicusmundi** Gipuzkoari eska diezazkioke 2025eko kanpo-auditoretzaren txostena eta kontabilitate-memoria osoa, edo gure webgunean kontsultatu: medicusmundigipuzkoa.eus/eu/gardentasuna/



MISIOAREN IRAUNKORTASUNA


medicusmundi Gipuzkoak bazkideen, dohaintza-emaielen eta erakunde publiko eta pribatuen babesa behar du. Lagundu nahi baduzu, hainbat modu dituzu: bazkide egin, boluntario bezala aritu, dohaintza egin edo ondarea utzi. Aukera horietako bat hautatu nahi baduzu edo zalantzarik baduzu, deitu edo idatz diezagukezu.

EKARPENEN JATORRIA




- Ekarpn publikoak 2.563.634,64€
- Ekarpn pribatuak 151.249,87€
- Beste diru-sarrera batzuk 14.415,69€

GASTUAK ARLOKA




- Garapenerako lankidetz 87,34%
- Hezkuntza ,sentsibilizazioa Gipuzkoan 5,50%
- Kudeaketa eta administrazioa 7,05%
- Komunikazioa 0,11%

LANKIDETZA-PROIEKTUETAKO GASTUAK HERRIALDEKA



- Etiopia 42,56%
- Peru 30,41%
- India 13,25%
- Ekuador 11,65%
- El Salvador 2,13%



DONOSTIA

Serapio Múgica 33, bajo
20016, Donostia

Tel.: 943 40 47 40 / 688 78 34 90



gipuzkoa@medicusmundi.es



www.medicusmundigipuzkoa.eus



[@medicusmundigipuzkoa](https://www.facebook.com/medicusmundigipuzkoa)



[@mmgipuzkoa.bsky.social](https://bsky.social/@mmgipuzkoa)



[@medicusmundigipuzkoa](https://www.instagram.com/medicusmundigipuzkoa)



[medicusmundi gipuzkoa](https://www.youtube.com/channel/UCmedicusmundigipuzkoa)